

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5747

AGINDUA, 2022ko abenduaren 2koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Fundación Gizakia izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa.

2022ko abuztuaren 4an, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko erregistroan telematikoki sartu zen Fundación Gizakia izeneko fundazioaren estatutuak aldatzeko eskritura publikoa, zeina 2022ko abuztuaren 4an egiletsi baitzen Juan Ignacio Gomeza Villa Bilboko notario jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 1.634).

Eskritura Publiko horretan sartu zen fundazioaren patronatuko idazkaria den María Gomeza Villa andreak, presidentearen oniritziarekin, 2022ko ekainaren 27an egindako ziurtagiria, patronatuak 2022ko ekainaren 20an egindako bilerarena. Bilera hartan, erabaki baitzen fundazioaren estatutuen 12. artikulua aldatzea, bilerak bideokonferentzia bidez edo beste baliabide telematiko batzuen bidez egin ahal izateko.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman behar du agindu bidez, estatutuak aldatzeko espediente honi buruzko ebazpena, honako arau hauetan xedatutakoarekin bat etorriz: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedientearekin batera, funtsezkotzat jotzen diren dokumentu eta datu guztiak aurkeztu dira. Horrela, bereziki betetzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan eskatutako betekizunak. Gainera, estatutuetan egindako aldaketak bat datoz aplikatutakoak diren lege eta erregelamenduetan xedatutakoarekin.

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, Agindu honen datarekin, Fundación Gizakia izeneko fundazioaren estatutuak 12. artikulua aldatzea (bilerak bideokonferentzia bidez edo beste baliabide telematiko batzuen bidez egin ahal izateko), Fundazioaren patronatuak 2022ko ekainaren 20an erabaki ostean eta, betiere, 2022ko abuztuaren 4an Juan Ignacio Gomeza Villa Bilboko notario jaunaren aurrean emandako eskritura publikoan ezarritakoa betez (protokolo-zenbakia: 1.634).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari eta haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 2a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.